

Petronor noiz arte?



Iñaki Barcena
EKOLOGISTAK
MARTXAN-EKO KIDEA

Petrohorror ezizena jarri zioten Athleticen kamisetan publizitatea egiten hasi zirenean 2008. urtean. Urtero bi milioi euro sartzen zituzten zurigorrien aurrekontuan, sei urte jarraian eta denak pozik, antza, ekologistak salbu. Baina urte oparoak bukatu ziren 2013an koke planta martxan jartzearekin batera, petrolio birfindegira zorrak etorri baitziren bi urtez jarraian. Batzuen ustez, 750 milioi euroko inbertsioaren ordaina zen. Beste batzuen ustez aldiz, gaurko sistema ekonomikoan birfindegi bat petrolio putzuen 6.000 kilometrotara egoteak ez du etorkizunik eta horren frogarik gordinena, 29 birfindegi itxi dutela European 2008tik hona (*Deia*, 2017ko uztailearen 9a).

Muskizko birfindegiak azken hiru urtetan mozkin apalak eduki ditu, baina presidente berriari, Emiliano Lopez Atxurra zumaiarrari, galdetu diotenean petrolioaren merkatuaren eboluzioaz edo prezioei buruz erantzuna grafikoa izan da oso: “Nik ez dut kristalezko bolarik”.

Komunikabide ekonomiko eta ofizialistek urtero errepikatzen digute lelo bera: “Diru gehien sartzen duena kutxa publikoan Euskal Herrian”, eta ez digute esaten gehien kutsatzen duena ere badela. (2,3 milioi tona CO₂, EAEko %35a). Duela gutxi Bilbon, topaketa ekosozialista batean Petronorreko langile batek haserreturik zioen: “Or-

daintzen dute legeak agintzen duena. Ez gehiago”. Eta duela 50 urtetik Muskiz eta inguruko herriak ari dira pozoitzen egunero diru horren truke. Noiz arte?

Petronorren geroa, bi faktore global eta orokorrekin markatuta dago, ezinbestean. Alde batetik *petrolioren gailurra*, hots, hemendik aurrera petrolio gutxiago, garestiagoa eta txarragoa izango dugu. Eta bestetik aldaketa klimatikoak seinaltzen duen urtezia eta negutegi efektua eragiten duten gas isurketen gutxitu beharra. Bi faktore horien aurrean bi bide desberdin ditu enpresak: bata, orain arte bezala segi, *business as usual*, egoera ekonomiko kritiko bat ezagutu arte, itxiera traumatiko batean murgildurik bukatuz. Siderurgian eta itsas ontziolatan adibide freskoak ditugu oraindik. Bigarrena, trantsizio energetikoaren eta birmoldaketa industrialaren bidea hartu, irizpide ekologiko jasangarriak, justizia soziala eta bide politiko demokratikoak praktikan jarritz. Bigarreneko bide hau, ez dugu uste Repsol (%86) eta Kutxabank (%14), hots, enpresaren jabeen gustukoa denik, euren helburu bakarria dirua irabaztea dutelako. Baina instituzio politikoek? Eta alderdi politiko eta sindikatuek? Ikusle moduan itxarongo dute birfindegiaren gainbehera? Egun hori heltzen denean Josu Jon Imaz eta Emiliano Lopez Atxurrari kristalezko bola bat oparituko diegu? ■

1.200 karaktere



Miren Artetxe Sarasola
BERTSOLARIA

Mila berrehun karakteretan ezin da hamargar gaia pulamentuz esan. Erabaki beharra daukazu esan nahi duzun hori, eta kondentsatu. Orduan, *aldarte nekatuen eta gogo nahasién garaiotan* zerbait handia esan nahi eta, sinekdoketxo homeopatikoak sortzen saiatzen zara etengabe.

Aipatzen duzu Seaskaren auzia eta nola eskola bidezko hizkuntza ezagutza duina bermatzen duen eskola eredu bakarria ito nahi duen Frantziak. Edo nola *Berdintasunezko etorkizun baten alde* manifestazioa egingo den laster Iruñean, Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika diskriminatzaileen aurka. Nola Gorka Urbizuk ez daukkan hamar mila euro aurreztuta bankuan

edo nola orain Donostiako Zinemaldiaren *nortasun grafiko berria* SSIFF den. Edo aipatzen duzu nola azken 1.200 karaktereak idatzi zenituenetik gizon batek bere bikotekide ohia autoarekin harrapatuta hil duen Donibane Garazin, bigarren batek bikotekidea eskopetaz bota duen Bidarten, eta hirugarrenak lepoa moztu zion bikotekide ohiari Gasteizen, haren ama ere hilaz, bide batez.

Eta saiatzen zara esan nahi duzun hori esateko *modua* aurkitzen, hori gabe ez baitute zentzurik testuek –ez laburrek eta ez luzeek–. Eta batzuetan iruditzen zaizu asmatu egin duzula eta gehienetan ez. Eta hitz egingo nizueke gehiago honetaz, baina, gehiegi luzatu naiz dagoeneko eta karaktereak falta zaizkit. ■